

# Goierri tarra

297. zenbakia 2006ko martxoak 10

## Repo, Zeberio eta Aierbe Herri-kirolari omenaldia



faktore

KOMUNIKAZIO  
GRAFIKOA

↓  
Oriamendi, 37 Behea  
20200 Beasain Gipuzkoa  
T 943 088 169  
faktore@faktore.net  
www.faktore.net

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA  
ETA KOMUNIKAZIOA





**BEROGAS**

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
BERRIKUNTZA LANAK  
GREMIO GUZTIEN ARDURA

**BERÓGAR**



SUKALDEKO ETA  
BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
USABAL, 11-A  
TOLOSA  
Tel.: 943 672 620

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**



**ERAKUSKETAK:**  
SAN FRANTZISKO, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 653 307



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*

*I. Fdez Or naburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.*

*Kursal*

**ZENTRO MEDIKUA**

**943 88 22 51**

Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:3204

## BERTSOTAN

## AHT



Odei Lopez

Abiadura handiko tren  
ibiliko zaigu bela  
a ze abaila itzela  
baina lur dena txikiturikan  
Madrilgo trenak bezela (bis)  
ikus dezaket gure herrian  
hauek agintzen dutela  
politika zein krudela  
ikusi det nik politika hau  
horrela ibiltzen dela  
gaur interesa ama lurraren  
gaintekan dagoela.

Paisai guztia egingo dute  
aldatu edo txikitu  
berdeguneak gutxitu  
trenak hainbeste zarata atera  
hori nahi nuke argitu (bis)  
esaten dute baietz batetik  
bestera errez mugitu  
baina mesedez aditu  
egia esan proiektu honek  
alde txar gehiago ditu  
ta horregatik eskatzen dugu  
AHT-a gelditu.

Doinua: Izugarri bat

Goierritarra

## HAMABOSTEKARIA

## Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

## Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

## Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 643

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere  
gain hartzen derrigorrez,  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzukizunik.**

## AURKIBIDEA

4. Iritzia: Jexux Aizpurua.

5. Ingurugiro txokoa: 10 arrazoi  
energia nuklearrari ez esateko.6. Errezeta: Zapo eta txangurro en-  
tsalada.


Aholkua: Oin diabetikoa.

7. Elkarrizketa: Abiadura Handiko  
Trena.12. Erreportajea: Osinalde saria: ber-  
tsolari gazteen plaza.16. Elkarrizketa: Martxel Zeberio,  
Joxe Aierbe eta Repo-ri omenaldia.

20. Agenda.

24. Debaldeko iragarkiak.

26. Argazki zaharra.



**Goierritarra** Goierriz kanpo  
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro

Europaz kanpo: urtean 39 euro

**Goierritarra** diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,  
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta  
Zeraingo udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Joxemartin Apalategiren azken behaketa

2006ko otsailaren 9a, osteguna

**A**rratsaldeko 6ak dira. Kanean ez dabil inor asko. Botikako kanpoko termometroan 8°. Negua da. Lainotuta dago. Jnetilbaratzen ez da putreen arrastorik eta Agerren ere jentilenik. Osaba Joxe eta biok San Gregoriora abiatu gara, Ezaluneko Joxemartin Apalategi Begiristainen hiletara. Bidean ez dugu topo handirik izan. Ohikoak baino auto gehixeago doa, dagoeneko, harantz. Arrondo auzoa ari da etxez janzten. Nazatik berehalaxe Arinbarberoe txer aurreko zelaian ere asmo horretan izango dira.

Intsaustiko zubian aparkatzen hasita daude. Telleriazpi parean ere bai. Oinezko batzuk badoaz. Zelaibarko sargunean ere norbaitek bere autoa hantxe utzi du. Elizako atarian bada jenderik. Portugañetik beherakoan, plaza autoz josita ikusi dugu; badira komeriak, goiz gentozen ustetan eta hara! Urretsuko Mikel ari da autoak katonatzen. Frontoira sartzeko agindu digu; denen beharra izango da.

Ttipi-ttapa, plazatik gora ezker-eskubi Ariñenea, Arrateberri, Arratezar, Dendaberri, Imazberri eta Elizondo. Eskaileretatik gora Sangregoriotxiki. Eliz-atarian Troskaetako Aitor eta Telleriazpiko Jexux. Jendea elizaratzen hasita dago.

Elizaren laurdena beteta dago. Aldare aurrean Joxemartinen hilotza duen zerraldoa. Inguruan familiakoak: ama Nati buru dutela. Jokin ari da, besteak beste, jendea hartu eta agurtzen. Horrelakoetan esaten direnak: ze ingo diau, ba? Hau guetzako zeok? Gazteik jun den, hoi den markea! Gaizki zana bagandekin, baña horren azkar!

Bosgarren ilaran sartu gara; pareta aldetik neroni eta jarrarian osaba Joxe, Goikoetxeko Mariatxo, Domingo eta Sangregoriotxiko beste emakumezko bat.

Joxemartin hantxe dago hilda, hil-kolorez koanto. Aldare aldean apaizak guztia prantatzen. Jendeak, etorri ahala, aurrera egiten du, familiakoak dolumindu eta lekua hartzera joan. Artaditxulo sartu da, Jokinek kauso noiz egingo zain egon da puska batean eta zerraldora inguratu da. Denboratan egon da Joxemartini beida eta beida.

Jendea errenkadan dator: Lauztiazpiko Martin, Jexux Mari Larrazabal, Goikoetxeko Domingo eta bere andrea, Sarriarteko Joxe prailea, Goikoetxeko Mariatxo, Dionixio Amundarain prailea meza emateko asmoz, Sangregoriotxikiko Pako, Aietzioko osaba Joxe dut aldamenean. Geroxeago sartu dira... Sutegiko Fermin eta bere andrea, Jexux Altona, Txintxurretako Antonio, Telleriako Antonio eta Lauztigarako bere andrea, Sangregoriotxikiko Joanito... Benito Dorronsororen alarguna bere semearekin, Antton Aranburu eta Antton Amundarain, Lazkanotegiberriko Joan...

Diosalak, agurrak, besarkadak eta "bizkarrekoak". Fami-

liakoek gogotik esker-tzen dute jendearen harrrera.

Joxe Okariztikoa... Errotaberriko Sagarrio...Inazio botikarioa, Lazkaoko Ropero, Joan Garmendia Larrañaga... Petraeneko Rakel... Mertzedes Etxeberria...Barandiarantxikiko Martin Barandiaran...

Musikea entzuten da bozgorailuetatik...Joan Joxe Agirre prailea, plastikozko zorro bat eskuan duela, meza emateko asmoz-edo, Munduateko Patxi, Tablako Dionixio... Jokin da zeremonia-maisu.. Gurutze Arregi makuluz lagunduta.

Iluntzeko 7ak jo aurretik hasi da mezea. Buru Koldo apaiz bizarduna, ezker aldean Joan Mari Olaetxea eta Joan Joxe Agirre Begiristain -Olatzako Alberto Begiristain prailearen iloba-, eskumatan X, Dionixio Amundarain eta Joxe Arratibel Sarriartekoa; irakurle Irango Joanita eta gizonetzko bat.

Epistolea gorbatadun gizaseme batek irakurri du, Ebanjelioa Joan Marik... familiako batzuk zinatatu egin dira.

Sermioian Koldok Joxemartin behin eta berriz aipatu du, bere fedea azpimarratuz.

Ondoren Joxemartinen iloba Ur-ek hiru orrialde irakurri ditu osabaren soslaia eta ekarmena eginez; tarteka negar-zotinei ezin eutsiz. Osabaren ibilbidea eta berarekiko harremana argazkien bidez garatu du. Jainkoa, Ala eta Buda aipatuz amaitu du saioa, Joxemartinek aitonaren hiletan egin zuen bezalaxe.

Eskean Telleriako Maria Jexux eta Administrazioako Arantxa aritu dira.

Jauna hartzerakoan, familiako batzuek hartu dute. Joan Joxe Agirre elizaren atzeko aldean aritu da "jauna" banatzen. Aldarearen eskuinetan gizonetzko bat egon da, pare-taren kontra, zutik elizkizun guztian, ezkerreko eskuaz eskumako ukalondoa helduz eta errezoak jarraituz.

Amaieran, Maite Idirinek korutik Requiema abestu du, ahots ezti eta trinkoz. Horretxek eman dio herritarren agurra Joxemartin Apalategi Begiristaini. Hilerrian izango dira hilotzaren hondakinak, hemendik aurrera, eta bere izpiritua Ataungo mendi eta haranetan biziko da. Agur, Joxemartin; hik eindakoa eztek alperrik izan!

Jexux Aizpurua Barandiaran

*Hilerrian izango*

*dira hilotzaren*

*bondakinak,*

*bemendik aurrera,*

*eta bere izpiritua*

*Ataungo mendi*

*eta haranetan*

*biziko da.*



kutxa

gizarte ekintza



# 10 arrazoi energia nuklearrari ez esateko (I)

## 1. Eguneroko kutsadura erradiaktiboa

Istripu zein ezusterik gabe funtzionatuko balute ere, edozein zentral nuklearrek isotopo erradiaktiboak igortzen dituzte atmosferara, baita hoztu ahal izateko behar duen ur-emarira ere. Bai eta industria nuklearraren zikloarekin zerikusia duten jarduera guztietara, hasi meatzarizatik, errektorerara eta erreprozesaketa plantetara, kutsadura erradiaktibo dosi garrantzitsuak sortzen ditu.

## 2. Hondakinak

Elektrizitate termikoa sortu ahal izateko, erregai bezala fisio nuklearraren erabilpenak hondakin erradiaktibo kantitate handiak sortzen ditu (1.000 MW-eko zentral batek urtero 25 tonelada material irradiatu sortzen ditu, hauen artean 200Kg. plutonio), zeinaren erradiaktibitatea hainbat mende edota mila urtekoren buruan ahulduko da nabarmenki, honek ikaragarriko kaltea utziko diolarik ondoren etorriko diren generazioei. Energi iturri honen jaiotzetik 40 urte pasa dira eta arazoak konpondu gabe dirau.

## 3. Arriskuak

Industria nuklearrak berak duen arriskua eta erabilpen militarrekin beti izan duen lotura estuak (kontutan izanik plutonio Kg. batzuekin erlatiboki erreza dela 20tik 30 megatono lehergailu bat egitea) arrisku handiko jarduera batean bihurtzen

du, teknologi hobe ezina izango litzatekeen funtzionamendu baten ustean ere. Berau kokatzen den inguru guztia dago zuzenki lotua sor litezkeen ondorioekin, bai hondamendi natural batekin bai nahita eginiko sabotai edo suntsiketa ekintza batekin ere.

## 4. Armamendu nuklearraren ugalketa

Industria nuklearraren jarduerak arma nuklearren ugalketa horizontala (herri artekoa) eta bertikala (herri bakoitzaren barnean) erraztu eta elikatu du, estatu ezberdinetako armadei erreprozesamenduko eraikuntzetan berreskuraturiko uranio edo plutonio fisio-garriak banatuz, esaterako: Frantziako Marcouleko erreprozesamenduko eraikuntzan Valdeñós I zentrolean agorturiko erregai nuklearra erreprozesatzen aritu dira, ia ohituraizat hartuaz. Lorturiko zati bat frantses armamendu nuklearreko programara desbideratua izan da.

## 5. Istripuak

Industria nuklearrak dituen funtzionamendu normalari loturiko arriskuez gain, badira gizaki mailan edota mekanikoki sorturiko hu-

tsegite edo ezusteren bidez eratorriak diren arriskuak ere. Industria nuklearraren bultzatzaileek arrisku hauek balio gabetzen saiatu ziren orain urte batzuk. Historiako 30 urtek erakutsi dute zein zentzugabea izan zen hori egitea: Chernobyl-go hondamendiaren kostu ekonomikoak kalkulaziazinak dira oraindik, baina iturri ofizial batzuek jadanik emanak dituzte zenbaki batzuk (50 bilioi pezeta), estatu espainarraren Barne Ekoizkin Gordina (PIB-a) baina altuagoak. 31 pertsonen heriotza eragin zuen, milioi erdi ama eta haurrek alde egin behar izan zuten, kutsadurak 2 hiri industrial uztera behartu zuen, zentralaren ingururako sarrera 30km-ra mugatua izan da epe mugagabe batean, 100.000 pertsonen emigratu beharra izan dute behin-betirako, Bielorrusiak dituen landutako lurren laurdena landuezina geratu da mende erdi bat baino gehiagorako, milioi bat pertsona maila altuko erradiazioen erruz nolabait "ukitua" geratu da, zientzialari batzuen arabera sortutako kantzerren zenbatekoa milioi erdi batekoa dela kalkulatu da,...

***Industria nuklearrak berak duen arriskua eta erabilpen militarrekin duen lotura estuak arrisku handiko ibarduera bihurtzen du***

## JAKIN BEHARREKOAK

### Euskal udal gehiago transgenikoez aske:

Abanto-Zierbana, Amoro-to, Amurrio, Arama, Arratzu, Aulesti, Balmaseda, Elgeta, Ezkio-Itsaso, Muskiz, Izurtza, Otxandio, Turtzioz, Zaldibia.

### Mendien defentsarako

**Plataforma:** Espainiako mendiak jasaten ari diren narriadura larria dela eta, MendiSarea eratu da, mendietako natur balioak babestu eta bertako biztanleen ongizate bidezkoaren alde. Bertan parte hartzen dute, Ecologistas en Acción, Mountain Wilderness, Manzanereseko La Pedriza mendi elkarte eta Desnivel taldea. [www.redmontanas.org](http://www.redmontanas.org).

### Bretainia Handian belarra erregaitzat duen zentral elektrikoa erakitzen.

Lehendabizikoa izango da eta 9 milioi t'erdiko inbertsioa suposatuko du. Erregai fosilen erabilpenarekin alderatuta, zentral honek orduko CO2 tona bat aurreztuko du.

## LIBURUA

### "Ekologiari buruzko liburuxka, Egunez egun".

Ekologistak Martxan, 2005. Liburuxka horretan ohiko jarduerak ingurumenean duten eragina azaltzen da, adibidez, hortzak txorrota irekita garbitzeak, osagarri gehiegi paketatuak erosteak edota kotxea gehiegi erabiltzeak. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzari esker, banatua.



**Lontxo Ormazabal**  
Korta erretegia  
Gabiria

**Osagaiak:**

- Otarrainxka bat
- 50 gr. txangurro egosia
- 125gr. zapo
- Letxuga julianan moztua
- Azenario erdia, birrindua
- Patata 1
- Perrexila
- Olio, ozpina, gatza

**Saltsa arrosa:**

- 3 goiladakada mahonesa
- Kepchup goilarakada 1/2
- Koñak tanta batzuk
- Laranja zukua

**Saltsa arrosa:**

Mahonesari osagai guztiak gehitzen joan, banaka eta ondo nahastuz, saltsa osatzeko.

**Entsalada:**

Zapo zatiak ura, gatza eta barazki batzuekin egosi 5 minutuz. Otarrainxka edo langostinoak minutu batez egosi.

Patata osoak egosi, lehortu, hozten utzi, azala kendu eta xerratu. Plater

batean jarri ondoren olio eta gatza gehitu.

Platera julianan ebakita-ko letxugarekin estali. Gai- nean patata egosiak jarri. Hauen gainean zapo pus- kak jarri eta gainetik txan- gurroa bota.

Saltsa arrosarekin estali. Otarrainxak egosia eta pe- rrexil pixka batekin apain- du. Plateraren albo batean azenario birrindua jarri eta mahaieratu.

## Oin diabetikoa

## AHOLKUA

Arriskudun pazienteak identifikatzen jakitea oso garrantzitsua da, heziketa intentsiboa eta jarraipen egokia eskaintzeko. Horretarako urtean behin, oinen azterketa zorrotza egin behar da. Arrisku pazienteak ondoko ezaugarriak dituztenak dira:

- ✓ Oinetako ultzeren aurrekariak.
- ✓ Aldakuntza baskular edo eta nerbio-soaren sintomak.
- ✓ Oinaren gaitz ortopedikoak (kakotutako behatzak, juanteak, oin planoak, oin kaboa...).
- ✓ Ikusmenaren gutxitzea.
- ✓ Giltzurrun gutxiegitasuna.
- ✓ Bizkar hezuraren flexioa gutxitzea.
- ✓ Diabetearen garapen luzea.
- ✓ Faktore pertsonal eta sozialak (adin aurreratua, gi-

zarte isolamendua...).

Oso garrantzitsua izango da pertsona horiek heziketa intentsiboa izatea eta honako ikasi beharko lukete:

**Oinen zaintza orokorra**

- ✓ Egunero 37 °C baino gutxiagoko uretan garbitu, xaboi neutro eta parafina oliorekin.
- ✓ Toaila leunekin lehortu, batez ere behatz tartean.
- ✓ Azkazalak zuzen ebaki, punta borobileko gorazekin edo ikusmen arazoak baldin badaude, limarekin.
- ✓ Gogortasunak podologoaren esku utzi.
- ✓ Kallizidarik ez erabili.
- ✓ Oinutsik ez ibili.
- ✓ Bero guneeatik (berogailua) gertu ez jarri oinak.

**Eguneroko azterketa**

- ✓ Zehatz aztertu oin guztia, behatz tartean... Lurrean ja-

rritako ispiluak lan hau erraztu dezake. Edozein baba, zauri... badago, podologoari kontsultatu.

**Oina janzteko modu egokia**

- ✓ Kotoi, hari edo artilezko galtzerdiak, joskurarik gabeak. Ez dezatela estutu.
- ✓ Media osoak erabili, ez ligak.

**Oinetako egokiak**

- ✓ Larruzkoak eta ez irristatzeko zorudunak.
- ✓ Lokarri edo belkroarekin.
- ✓ Zoru zabaleko takioia, eta ez oso altua.
- ✓ Barruan joskurarik gabe. Behatzetan alteraziorik balezko, likrazko palarekin.
- ✓ Oinetakoak eguneko azken orduan erosi.
- ✓ Oinetako berrietara egokitzea poliki-poliki egin behar da.



**Ainara Etxeberria**  
Hankara podologia

- ✓ Jantzi aurretik, oinetakoaren barrualdea eskuarekin arakatu.

Aldizkako azterketak (6 eta 12 hilabete tartean) egin beharko dira oinaren egoera aztertzeko, arriskua aldatu den begiratu eta pazienteak ezarritako arauak betetzen dituen ikusteko.

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

*Lirain*

*Lurrindegia eta opari gaiak*




**GERTU**  
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gertu@gertuasesores.com

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada:

## “AHT-ak bete-betean harrapatuko du Goierri”



*Nafarroako adarrak Aralar zulatuko luke.*

**O**tsailaren amaieran, Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanbladak, ‘Abiadura Handiko Trenak Aralar mendian eragingo lituzkeen inpaktuei buruzko txostena. Nafarroako Korridorea eta ‘Euskal Y’-a lotzearen ondorioz’ txostena aurkeztu zuen Ordizian. Txosten hori aitzakia hartuta, Abiadura Handiko Trenaren egoera zertan den jakin nahi izan dugu.

Abiadura Handiko Trenaren Kontrako Asanbladako eta Elkarlaneko kideak dira Koro Irazustabarrena eta Xabier Saavedra beasaindarrak, eta Dani Etxeberria itsasondoarra. ‘Euskal Y’ (EAEko hiru hiriburuak lotzen dituena) deituriko ibilbideak eta Nafarroako Korridoreak Goierriin bat egingo dutela-eta, kezka sortu da Abiadura Handiko Trenaren Aurkako taldeen artean. Kezka are eta handiago da, Nafarroako Korridoreak, Aralar erdiz erdi harrapatuko duelako, horrek dakar-

tzan “ingurugiro arloko kalteak” ikusita.

Abiadura Handiko Trenaren proiektuen eta filosofian hitz egin digute Irazustabarrenak, Saavedrak eta Etxeberriak, behin eta berri, AHT-rik behar ez dela argudiatuz.

**Nafarroako Korridoreaz txostena kaleratu duzue, baina zein da ‘Euskal Y’-aren egoera momentu honetan?**

**Dani Etxeberria:** Dirudieenez, Euskal Y-aren proiektua, Eusko Jaurlaritzaren eta Madrildgo Gobernuaren arte-

**IÑAKI ARIN**  
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

**B E A S A I N**

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

Aho kirurgia

Inplantologia

Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ko sinadura baten menpe dago. Otsailean egitekoa zela zirudien baina ez da egin. Konbenioa idatzita dago baina...

**Xabier Saavedra:** Nuria Lopez Gereñuk aurkezpena Gasteizen egin nahi zuela dirudi eta Madrilgo Gobernua presionatu egin nahi izan du, Estatuko aurrekontua hona bideratzeko.

**Etxeberría:** Konbenioaren arabera, Bilbotik Gasteiza eta Gasteiztik Donostiara bitarteko ibilbidea Madrilgo Gobernuaren esku gelditzen da, Donostiatik Bilborakoa, berriz, Eusko Jaurlaritzaren esku.

**Zenbait lekutan, lurren desjabetzak hasi dira.**


**Etxeberría:** Aramaion-eta hasi ditu Madrilgo Gobernuak. Desjabetzaren prozedimendua nahiko ixilean doa.

**Saavedra:** Ikusten da alderdi politiko ia guztien babesa baduela proiektuak. Baina zergatik ari ote den atzeratzen? Gure ustez, dirua falta zaie. Zaila da jakitea.

**Iazko abuztuaren Ordizian zerbaiten hastekoak zirela zabaldu zen.**

**Etxeberría:** Hori azken batean, Alvaro Amman sailburuaren jokaldia izan zen. Madril gehiago estutzeko, Itsasondo eta Ordizia arteko tunela egiten hasi behar zuela esan zuen. Baina ordura arte, ez zen Eusko Jaurlaritzaren eskumena horrelako lizitazioak egitea, baizik eta Madrilgo Fomentoarena. Tira-bira sortu zen bi erakundeen artean, Konstituzionalera eramango zutela esanez... Baina prozesua indartu eta bizkortu egin zen eta akordioa sinatu zen. Bakoitzak zein lan egin behar dituen adostu dute. Baina dena geldituta dago.

**Euskal Y-aren proiektuaren arabera, Goierri, Ezkio-Itsasotik Legorretara zeharkatuko du. Ezkio-Itsason geltokia joatekoa**



## AHT-ren ezaugarriak

Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanbladak emandako datuen arabera, ezaugarri hauek izango lituzte trenak eta bere azpiegiturak:

● **Abiadura:** Bidaiarien kasuan, 250 km/o-ko abiaduran ibiliko litzateke trenak. Zaldibiatik iparralderako lotuenean, desbioetan, gehienezko abiadura 220 km/o izango da. Merkantzien kasuan, gehienez 90-100 km/o-ko abiadura hartuko luke.

● **Tunelak:** Tunelaren sekzioa 85 m<sup>2</sup>-koa izango litzateke. Dena den, 100 m<sup>2</sup>ko sekzioa egin beharko da.

● **Hondakinak:** Tunelak hondeatzetik ateratako eta hondakindegietan botatzeko material soberakina honakoa izango da: tuneleko metro bakoitzeko, 200 m<sup>3</sup> inguru. Hau da, tunel bakoitzeko, 200.000 m<sup>2</sup>.

● **Harrobiak:** Tuneletan hormigoia jar-

tzeko, azpiegituraren metro lineal bakoitzeko 15 m<sup>3</sup>. beharko litzateke. Hormigoizko plaka 58 cm-ko lodierakoa beharko luke izan.

● **Pistak:** Tuneletara eta hondakindegietara iristeko pistak, obra egin bitartean, 5 metroko zabalerakoa izan beharko du eta planta zementatua izan behartu dute.

● **Larrialdietarako galeriak:** Istripua gertatuz gero kontuan hartu beharreko segurtasun neurriak direla eta, gehienez 750 m-koa izan behar du tuneleko edozein lekutatik kerik gabeko eremu batera dagoen distantzia. Hori konpontzeko larrialdietarako galeriak eraikitzea aurreikusten du proiektuak: AHT-eko tunelaren paraleloan beste tunel bat eraiki edo larrialdietarako zenbait galeria banandu hondeatuko lirateke, tuneletik kanpora konektatuta.

**omen da...**

**Etxeberría:** orain dela bi urte Ezkio-Itsasoko udal-txean, ez zekiten ezer. Duela urte eta erdi Alvaro Aman sailburuarekin bilera bat egin genuen eta printzipioz geltokia Ezkion planteatua zegoela esan zigun. Ezkio-Itsasoko udalak orain azterketa bat egin du, non dena geltoki horretan oinarritzen den. Ze hazkunde edukiko lukeen, 2020. urtera arteko plangintza bat egin dute. Proiektua inon ez da azal-

tzen baina norbaitek badu informazioa.

**Irazustabarrena:** Ordiziak ere geltokia nahi duela esaten da, kalteei etekina atera nahian.

**Saavedra:** Jaurlaritzatik etengabeko propaganda egiten ari dira herritarrak proiektuaren parte sentitu daitezten. Era horretako geltokiak herri batean jartzeak ez du ezertarako balio. Tren hau, Madril eta Paris arteko tren da. Euskadin 100 kilometro egiteko ez du balio.


**Etxeberría:** Arrasaten ere eskatu dute geltokia. Proiektu bat saldu ezin denean, zenbait teknika erabili behar dira.

**Irazustabarrena:** Teknikoki zaila omen da bi erabile- ra dituen bi trenak lortzea, hau da, merkantziarena eta jendearena.

**Zergatik dago horrelako desinformazioa edo horrelako isiltasuna?**

**Etxeberría:** Adibidez, aurreko batean Mikel Alvarezek eta biok Araman eman





## Nafarroako adarraren lotunea

Nafarroako Korridorea eta 'Euskal Y'-a elkartzeko lotuneari begira, azpiegitura hauek aurreikusten dira Goierrin:

### Tunelak: 17 tunel, 18,900 km.

- Gaintza: Aldaburu (1): 600 m.  
Aldaburu (2): 1.100 m.  
Aldaburu (3): 1.000 m.
- Altzaga: Abalias (1): 1.200 m.  
Abalias (2): 1.800 m.  
Abalias (3): 1.200 m.
- Ordizia: Argindegí (1): 800 m.  
Argindegí (2): 800 m.
- Beasain: Erauskin (1): 1.800 m.  
Erauskin (2): 700 m.  
Loinatz: 900 m.  
Gudugarreta (1): 300 m.  
Gudugarreta (2): 300 m.
- Itsasondo: 400 m.
- Legorreta: Legorretazar (1): 3.200 m.  
Legorretazar (2): 2.200 m.  
Koate: 700 m.

### Biaduktuak: 13 biaduktu, 3.740 km.

- Zaldibia: Berdillari (1): 300 m.  
Berdillari (2): 300 m.
- Arama-Ordizia: Oria: 640 x 40 m.
- Ordizia-Beasain: Mariaras (1): 120 m.  
Marias (2): 120 m.
- Beasain: Ittola (1): 400 m.  
Ittola (2): 400 m.
- Arama: Artzabaltza erreka: 140 m.
- Itsasondo: Oria: 600 x 60 m.
- Itsasondo-Legorreta: Berostegi (1): 140 m.  
Berostegi (2): 140 m.
- Legorreta-Aldaba: Ugaran (1): 200 m.  
Ugaran (2): 200 m.

### Lubakiak, ebakitako baso-zatiak eta lubetak: 5,200 km.

- Zaldibia: Zunzunegi, Urtezabal eta Aranguren.
- Arama: Ordizia: Zabale.
- Ordizia-Beasain: Mariaras.
- Beasain: Loinaz eta Agerre.
- Itsasondo: Legorreta: Kortatu eta Koate.

genuen hitzaldian, bertako alkateak, urte asko daromatza, lehenengo albisteak orduan jaso zuen. Berak galdetzen zuen, nola zen posible, hainbeste eragiten dion herri bati, proiektua ate joka dagoenean, ezer ez jakitea. Nola da posible horrelako informazioarekin izkutukerian ibiltzea. Zergatik Eusko Jaurlaritzak ez du egin ahalegina, Agenda 21ekin egin den bezala, herriz herri egitea. Telebistan egindako 20 segundoko iragarkiarekin ez.

Kontua da, Eusko Jaurlaritzak informazioa ez zabaltzeaz gain, eskatu eta ez duela ematen.

### Herritarren artean zein jarrera ari zarete jasotzen?

**Irazustabarrena:** Interes gutxi dago, mobilizazio gutxi.

**Etxeberría:** Egia esanda ez zaio aukerarik ematen jakiteko, bere iritzia emateko, pentsatzen duena esateko. Jaurlaritzaren ardura informatzea da. Gero jendeak erabakiko du ados dagoen ala ez.

**Saavedra:** Jaurlaritza ari da bere publizitate kanpaina egiten. Ikusi egin behar da hainbat egunkaritan ze informazio ateratzen diren. Interesatzen zaiena argitaratzen dute. AHT-ek sortutako dituen lanpostuak, merkantziak errepidetik aterako direla, Donostiatik Bilbora x minututan iritsiko zarela... AHT-ek dena konponduko digula esaten ari dira. Bizitza estilo bat ezartzen ari dira.

### IBILBIDERIK GEHIENA LUR AZPITIK JOANGO DA. INPAKTU BISUALA GUTXITZEN BADA ERE, ZER ARAZO SORTZEN DITU TUNEL BATEK?

**Saavedra:** 190 kilometrotatik 128 km tunel izango dira. 750 metroko larrialdiko irteera eta tunel bat egin behar dira.

**Etxeberría:** Adibidez, Itsasondoko tunela egitea 3

urteko lana da. Ia, 3 kilometroko tunela da. Pentsa hiru urtean, hortik aterako den zabor guztia, kamioien joan-etorriak, pista asfaltatuak, eskonbrerak, harrobi berriak, halako makina klase bat, hainbeste langile... Gainera, Gereñu seguru dago 2010. urterako trena martxan izango dela. 2006an gaude eta ia ezer ez bada egin... eta 3 kilometroko tunel bat egiteko 3 urte behar badira... Larrialdietako irteerak eta tunelak ere egin behar dira. Itsasondon, Ibares pare horretan, karril bat tuneletik ateratzen da. 3 kilometroro horrelako zerbait egin behar da.

**Irazustabarrena:** Ikusi egin beharko da hondakinak ere nora botatzen dituzten. Hondakinak ez daude edonon botatzerik.

**Etxeberría:** Hondakin horiek denak botatzeko lekurik ez dago hemen.

**Saavedra:** Euskal Herria izango da, metro karratuko lur artifizializatu gehiena edukiko lukeena, Estatu Batuak baino gehiago.

## Argumentu okerrak

**Erakundeetatik Abiadura Handiko Trenaren onurak aipatzen dira.**

**Saavedra:** Jendearen mugikortasunerako hobetzea, merkantziak errepidetik ateratzea, lanpostuak sortzea, turismoa erakartzea... aipatzen ari dira AHT-aren aldeko argumentu bezala. Baina adibidez, Zegamako batek Iruñean lan egiten badu, Donostiara joan behar du trena hartzera, Donostiatik Iruñeara trenez joango da 20 minutuan, baina, Zegamatik, Donostiara, autoa aparkatu, trena parean tokatu, Iruñeara joan, han beharbada, beste autobus bat hartu zure lantokira joateko... Pentsa zenbat denbora behar duen azkenean. Beraz, hori al da jendearen mugikortasuna hobetuko duen trena? Horrek bizi ka-



## Herri txikien gainbehera

Dani Etxeberriak azpimarratu duenez, "Goierri herri txikiak gara. Horrelako azpiegitura batek ekarri dezake zenbait herriren desagertzea. Itsasondoren kasua adibidez, ea nor gelditzen den zubi baten azpian edo aldamenetan bizitzen. Tunelen gainean ere, distantzia batera ezin da bizi. Landaketak ere ezin dira egin. Itsasondo bezala, Ezkio-Itsaso, Zaldibia, Ataun... Beasainen adibidez lur azpitik doa. Baina hor daude, hotsak, mugimenduak..."

Hirugarren sektorearen, nekazaritzaren aipamena ere egin nahi izan du itsasondoarrak. "Hirugarren sektorea ere hor dago gero eta baldintza kaskarragoetan. AHT-ren kasuan, desjabetzak ez omen dira egingo diru baten truke. Beste lur baten truke egingo omen dira. Etxe ondoan zegoen lursailaren ordez, lau kilometroro dagoen lursaila eskainiko zaio. Hori kalkulatu dagoela esan zigen Amannek. Baserritarrari oraindik ere traba gehiago jarriko zaizkio".

litatea hobetuko al du? Hainbeste irabazten al da denboran? Hori saldu nahi digute.

Madril-Lisboa edo Madril-Paris ardatzarentzako trena da hau. Hegazkina hartu beharrean, beharbada denbora gutxiagoan joango zara Madrilditik Parisa. Beraien zaborra guk jan behar al dugu? Euskal Herria ezin dugu zabortegi batean bihurtu.

**Etxeberría:** Trenak, abiadura handiko trena dauka izena. Baina hemen oso urruti gelditzen den zerbait da. Hegazkinaren pareko zerbait da, baina karril gainean doana. Azkenean, distantzia handirako trena da. Gaur egun, hegazkina erabiltzen duenak tren hau erabiliko du.

**Etxeberría:** 'Euskal Y' eta 'Nafarroako H', Europa mailan, oso zati txiki bat da. Orduan, Donostiatik Bilbora ordu erdi batean joango garela esatea... ez pentsa egunero 50 tren ibiliko direnik bueltaka. Gehienak, Bordeletik Madril doazena izango dira. Azkenean, Renfeko trenak bezala, hemengo geltokiak txikiak izango dira. Itsasondon adibidez, tren guztiak ez dira gelditzen. Antzeko zerbait izango dira Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea.

Renfe saiatu zenean zenbati geltoki baliogabetzen, esaten zuten, ekonomikoki oso garestia zela kontsumo aldetik, trena gelditu eta berriz martxan jartzea. Pentsa horrelako tren batentzat zer suposatuko

duen. Donostiatik Bilbora joateko, abiadura hartzen duenerako gelditu egin behar da.

**Saavedra:** Merkantziei dagokionean ere, gezurra zabaltzen ari dira. Merkantziak ezin dira abiadura zehatz batetik gora ibili.

**Etxeberría:** Europa mailan, abiadura handiko trena ez da erabiltzen merkantziatzako. Izan ere, merkantziek izugarriko karga daukate eta trenbideak hondatu egiten dituzte.

**Saavedra:** Merkantzien garraioa erabiltzen dutenek gainera ez dute abiadura trenik nahi, beraien dinamikarekin bat ez datorrelako. N-1a deskongestionatuko dutela esaten dute. Baina hori gezurra da. 2015era bitartean, trafikoa haziko den portzentajea, kopuru txikia izango da AHT-ak kendu duena.

**Etxeberría:** Trafikoaren adibidea, gaur egun jendeak ikusten duen arazoa da. Orduan, AHT-ak hori egingo badu... eta konforme gelditzen da.

**Trenak sortuko duen hotsak ere kezkatzen zaituzte.**

**Etxeberría:** Frantzian gomendatzen dute, horrelako trenbide batetik 250 metroa ez bizitzea, osasunerako txarra delako. Itsasondoko proiektuan, zenbait baserrien gainetik pasatuko da. Zaldibian ere herritik oso gertu pasatuko da.

**Kostu ekonomiko handiko proiektua da AHT-rena.**

**Etxeberría:** Oraindik ere 10 urte egindako aurrekontuaz hitz egiten ari dira Jaurlaritzan. Naturalki egon daitekeen igoera eta egon daitezkeen desfase guztiak gehitu behar zaizkio. Ekonomikoki, merezi al du horrelako gastu bat egitea, gutxi batzuentzat? Horrelako dirutza batekin, garraio publiko dohainik jarrita, 50 urterako dirua izango genuke.



## AHT-ren aurkako Asanbladaren txostena

# Aralar mendian eragingo lituzkeen inpaktuak

**Ataungo Domoa izango litzateke gune kaltetuetako bat.**



Nafarroako Korridorea eta 'Euskal Y'-a Ordizian lotzeko ekarriko lituzkeen inpaktuen inguruan txostena aurkeztu du Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanbladak. Gizarteari, azterketa informatzailea eta kritikoa zabaldu nahi izan diote.

Aralar mendilerroa zeharkatzea eta Ordizian, 'Euskal Y'-arekin egingo litzatekeen lotura aztertu ditu AHT-ren aurkako Asanbladak.

### Zuasti-Ordizia proiektua

Iruña iparraldetik, Zuastitik, Arakil ibarra zeharkatu ondoren, Lizarrustin barrera sartuko litzateke Goierri AHT-a. Aralarren 10,3 kilometro egingo lituzteke.

Ordiziako lotunera bitartean, Ataunen, Zaldibian, Gaintzan, Altzagan, Araman, Ordizian, Itsasondon, Legorretan eta Beasainen eragingo luke Nafarroako Korridoreak. Zati honetan,

17 tunel, 13 biadukto eta zenbait lubaki aurreikusten dira. Luzeena, Aralar mendia zeharkatuko duen luzeena, 6,3 km-koa izango da. AHT-ren aurkako Asanbladaren hitzetan.

Proiektuaren arabera, Ordizian bat egingo luke 'Euskal Y'-arekin. "Azpiegitura-lotune konplexua egin behar da. Lotunea egiteko lan oso konplexuak eta inpaktu handiko azpiegiturak eraikiko lirateke Zaldibian, Gaintzan, Altzagan, Aramana, Ordizian, Beasainen, Itsasondon eta Legorretan.

### Inpaktuak

AHTa Aralardik pasatzeak, sortuko lituztekeen inpaktuak azaldu ditu AHT-ren aurkako Asanbladak:

● **Ataungo Domoa:** "Gipuzkoa osoan interes geologikorik gehien duen esparruetako bat da 'Gipuzkoako geomorfologia eta edafologia' lanaren arabera. Es-

kualde mailan interes estratifikiko, tektniko, geomorfologiko, hidrogeologiko, eta paisajistikoa aldetik, formazio berezia baita. Ubediko sima, Troskaetako leizea, Osinberdeko iturburu... daude bertan".

● **Lurpeko hidrologia:** "Oso interes hidrogeologiko handiko mendigunea da Aralar, karstifikazio fenomenoak oso garatuta daudena. Tuneletarako egin beharretako zulaketek inpaktu kritikoak eragin liezazkioke lurpeko hidrologiari. Bertan dauden Agauntza errekarri, akuiferoieiei, iturburuei (Aiaturrieta, Osinbeltz...). Bere ziki Osinberde azpiunitatean eraingo lukeen kaltea nabarmendu du AHT-ren aurkako Asanbladak.

● **Aberastasun naturalak:** "Interes handiko aberastasun naturalak eragindako eremu osoak. Lizarrustiko pagadia; Agauntza goi-ibarraren harkaiztia eta basoa;

Ataungo domoko gailur lebroa, artadi zabala eta interes handiko hegazti fauna; hainbat ibilgu, iturri, putzu eta isurbide dauden ingurunea, flora eta fauna dituztenak. Bestalde desagertzeko arriskuan dauden ornogabea (ibai karramarroa), ugaztun erdiurtarrak (muturluze pirinearra, bisoi europarra) habitat egokia dute inguru horretan".

● **Kultur ondarea:** "Kultur ondare garrantzitsua duen ingurunea da. Eragin soziokulturari dagokionez ingurune oso estimatua da. Bertan historiaurreko aztarna ugari daude, bai lezeak bai monumento megalitikoak. Esate baterako, ingurune honetan egin zituen On Joxemiel Barandiaranek bere lehen miaketak".

● **Aralar Parke Naturala:** Aralar Parke Naturala auzitan jartzen du AHT-ren aurkako Asanbladak. "10,3 km egingo ditu Aralarko Parke Naturalaren Gipuzkoako partean. Aralar aldean parke naturaltzat aitortzen duen 168/1994 Dekretuko azken artikulua 'Autobideen, autobien eta errepide lasterren proiektuak' eta 'Trenbide garraioko azpiegiturak' eraiki daitezkeela adierazten du. Harriagarriago da Aiako Harria Parke Naturalaren Antolamendu planak 21. artikuluan ordea guzti hori debekatzen duela ikusita. Badirudi Aralarko Parke Naturalaren plana moldatu egin dela AHT-en interesak ez kaltetzeko".

**TOLDOS OLANAK**  
**AGUSTIN S.L.**  
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

toldosagustin.com  
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

**iñAUSTI** N-1 errepidea  
lurre auzoa  
OLABERRIA  
KARROZERIA  
943 88 43 01



# Osinalde saria: bertsolari gazteen plaza

*Euxebio Igartzabal: "Bertsolari gazterik ez zetorrelako eta entzule gazterik ez zetorrelako hasi ginen Osinalde antolatzen"*

**A**pirilaren 8an jokatu da Gabiriako Osinalde elkartearen, 37. Osinalde Saria. 6 bertsolari lehiatu dira. Aurretik, Idiazabalen, Aztirin eta Ordizian, 18 bertsolari gazte, Gabiriako txartela eskuratzen ahaleginduko dira. 1996. urteaz geroztik jokatu da Osinalde saria aurrekanporaketa sistemarekin. Dena den,

sarietaren sorrerako urteetan, 6 bertsolari gazte ezin aurkitu ibiltzen ziren antolatzaileak. Bertsolaritza gazte-zeko sortu zen lehiaketak, beraz, helburua bete du. Euxebio Igartzabal bertsolari gabiriarrak, kontatu dizkigu bertsolarien artean hain famatu egin den Gabiriko Osinalde sariaren historia eta filosofia.

<b>PSIKOLOGI KLINIKOA</b>	
	Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN	
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak	

	<b>ARANDIA</b> Garajea	N-1, z/g Iurre Auzoa
LADA Ssang Yong	AUTOEN KONPONKETA	OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



**25. urteurrena bete zenean, 1996an, ordura arteko irabazleekin saio berezia egin zen. Guztiak, argazkian. Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Narbarte, Ziarda, Suberbiola, Elgetzu, Munduate, Sarasua, Sarriegi, Gorostidi, Igor Elorza eta Xalbador. Erdian: Euzkitze, Attola, Azpillaga, Telleria, Loidisaletxe. Aurrean: Zeberio, Begiristain, Otamendi, Mendizabal, Iraola eta Elorza.**



Gaur egun bertsolaritzaren egoera bestelakoa bada ere, 1968. urte aldera, Gabirian bazen kezka bat: “bertsolari gazterik ez zela inon azaltzen ikusten genuen. Jende bat iritsi zen esatera, azkeneko bertsolaria Jose Luis Gorrotxategi izango zela”, gogoratu du Euxebio Igartzabal bertsolariak eta Osinalde sariaren sortzaileetarikoa batek.

Entzule gazterik ere ez zen saioetan ikusten. “Bertsolari gazterik ez zetorrela eta entzule gazterik ez zetorrela saioetara ikusten zen. Normala zen hori. Bertsolari zaharrak jende gazteari euren gustuko gauzak esatea zaila zelako. Jende gazteari bertsolari gazteak kantatu behar ziola garbi ikusten genuen. 60an eta 62an bertsuak entzutera joaten zen gazteena ni izaten nintzen”.

Egoeraz kezkatuta, Gabiriako eta eskualdeko hainbat bertsolari eta bertsozale elkartu ziren Ordiziako Gau Txori tabernan. Juan Mari Lekuona ekarri zuten hitzaldia ematera, Itsasoko Alegiko Joxe Mari Landaren bitartez. “Lehenago bertsolaritzaren berri eman zigun eta elkarrekin lanean jarraitzeko izugarritzko morala eman zigun. Patxi Irao-

lak eta Florentino Goiburuk ere oso begi onez ikusi zuten txapelketa. Gu baino zaharragoak zirenek ere babesa emateak, izugarritzko morala eman zigun”.

Gabirian bertan izandako beste gertaera batek ere animatu zituen sariketa antolatuzera, Igartzabalek adierazi digunez: “1970ean, kanpoan, lehenengo jaialdia egin genuen. Patxi Badiola presoaren alde dirua biltzeko jaialdia antolatu genuen. Futbol-zelaian egin genuen. 750 sarrera saldu ziren”.

### Gazteen plaza

Beraz, bertsolari gazteak plazaratzeko modua jartzen hastea erabaki zuten Gabirian. Luzio Gabiriak Zumarragan, Galeperra elkartean sortutako formatoa aukeratu zuten Gabiriarako. Hau da, bertso-afariaren ondorengo lehiaketa. “Beti ere lasaitu egiten du horrek. Komunera bueltaka ere ibiltzen dira, baina lasaitu egiten du”.

Bitxikeria bezala aipatu, urte batean izan ezik, urtero, menu berdina izan dela afarian: pikatxa, arkume errea entsaladarekin, gazta menbriloarekin edo fruta.

## Irabazleak

Patxi Iraola	Zaldibia	1971
Luis Otamendi	Aia	1973
Xabier Zeberio	Itsasondo	1974
J. Izagirre 'Attola'	Azkoitia	1975
Mikel Menizabal	Itsasondo	1976
J.I. Begiristain	Ataun	1977
Elgetzu	Mallabia	1978
Ziarda	Elgoibar	1979
Millan Telleria	Albiztur	1980
Xalbador Laka	Berriatua	1981
Jon Sarasua	Aretxabal.	1982
Xabier Euzkitze	Azpeitia	1983
Loidisaletxe	Errezil	1984
P. J. Aristorena	Hernani	1985
Joxe Mari Izeta	Usurbil	1986
Xabier Narbarte	Lazkao	1987
J.Ramon Elorza	Ormaiztegi	1988
Joxe Munduate	Ataun	1989
B.Azpillaga	Errezil	1990
Igor Elortza	Durango	1991
Maialen Lujanbio	Hernani	1992
Aitor Sarriegi	Beasain	1993
Pablo Suberbiola	Lasarte	1994
Bixente Gorostidi	Amezketza	1995
Jexuxmari Irazu	Larraul	1997
N. Gabilondo	Zarautz	1998
A. Goikoetxea	Oiartzun	1999
Nera Elustondo	Legazpi	2000
A. Agirrezaldegi	Bergara	2001
Iker Zubeldia	Zegama	2002
Iñaki Apalategi	Beasain	2003
Oihana Bartra	Bilbo	2004
Aritz Aranburu	Zarautz	2005

\*1972an ez zen jokatu

\*1996an 25. urteurreneko ospakizuna egin zen.

## Bertsolari bila

6 edo 8 bertsolarirekin jokatu izan da Osinalde saria. Garai batean, batez ere Eskolarteko Bertsolari Txapelketa sortu bitartean, nahikoa lan izaten zuten antolatzailleak bertsolari gazteak bilatzen. Han bat badela, bestean beste bat... makina bat kilometro egindakoak dira. "Attola adibidez. Nahikoa poliki egiten zuen. Aurretik probatuta neukan, Lasturren. Etxera joan eta gonbidatu nuen txapelketan parte hartzera. Etorri eta irabazi egin zuen".

Hori bai, beti saiatu izan dira, saioari gutxieneko maila bat ematen. Horregatik, 1996. urtera arte, antolatzailleak beraiek aukeratu izan dituzte bertan parte hartuko zuten bertsolariak. "Beraz, aurretik proban jartzen genituen nola edo hala, ezagutu ere ez ziren egiten-eta. Gutxieneko maila bat emango duela ziurtatu izan dugu".

Lagun artean aritzetik sariketa batera dagoen jautzia ikusita, bertsolaria laguntze aldera, bertsolaria "mimatu" egin dute Gabirian. "Lagundu egin nahi izan diogu bertsolariari. Bakoitzari bere gaia jartzen diogu. Hemendik aurrera ez dakit zer gertatuko den, orain datozenak landutako jendea baita. Baina orain arte, bertsolari bat artzaina bada, dominatu dezakeen gaia jartzen zaio. Artzaina ez dugu astronauta jarriko", dio gabiriarrak.

Ahaleginaren ondorioz, gaur egun plazetan dabilzan bertsolari gehienak Osinalden kantatuak dira. Hori bai, bi bertsolariren hutsunea izan da: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. "Egañak, Zaldibian, lehenengo lehiaketara aurkeztu eta irabazi egin zuen. Beraz, ez genuen gonbidatu. Lizaso gonbidatu genuen, 16 urte zituenean, baina azkenean ez zen etorri".

## Ugaritasuna

Urteekin, 6-8 bertsolari bilatu ezinik ibiltzetik, aukeran, 20 bertsolari izatera pasatu ziren Gabirian, Eskolarteko txapelketen emaitzak iristen hasi baitziren. 1996an, egoera berria aztertzeke eta irtenbiderik egokiena eman nahian, berriz ere Goierriko bertsozaleengana jo zuten gabiriarrak. "Hainbat elkarteri proposatu genien, Osinalde sariaren aurretik, beste hiru saio jokatzera, hiru elkartetan. Bakoitzean seina bertsolari aritzen dira eta saio bakoitzetik bik lortzen dute Gabirian kantatzeko txartela".

Beraz, bertsolaritzaren egoeraren aldaketaren ondorioz, Osinalde saria ere birmoldatu egin zen. Urtero, 18 eta 25 urte bitarteko 18 bertsolariri ematen zaie aukera, afariaren bueltan, beraien onena erakusteko, "beste txapelketa eta sariketei lekurik gabe".

## Gaijartzaileak, epaimahaia, entzuleak

Herritarren artean osatutako sariketa izaten da: dozenarikoa lagun taldea elkartzen da gaiak jartzeko. Gaiak ematen, azkenaldian, Jokin Murua aritzen da. Bertsolarien lana epaitzen, berriz, Miel Agirre, Mikel Mendizabal, Nikolas Zeberio, Altzo Txiki, Joxe Mari Gabiria, Jokin Matxinandiarena eta Euxebio Igartzabal aritzen dira. Entzulea ere epaile izaten da eta beraien iritzia ere ematen dute. Igartzabalek adierazi digunez, ia beti, bat etortzen dira bi erabakiak.

Horren adibide da, 1983. urtean gertatu zena. Euzkitze eta Loidisaletzek berdinketa egin zuten; desenpatetan ere bai. Entzulearen botazioaren arabera ere, pare-parean ibili ziren bi bertsolariak. Azkenean, inprobisazioari leku eginez, 9 puntu bertsu bana botatzeko agindu zieten. Euzkitze izan zen irabazlea.



# Euxebio Igartzabal 0

## Poza ere emango du Osinalde saria irabazi eta goi mailan dabilzan bertsolariak ikustea?

Bai. Eta beste batzuk, etorri eta irabazi ez dutenak. Satisfazio pixka bat ematen du bai horrek.

## Izena daukan saria da Osinalde.

Bertsolariek eman diote izena Osinalderi. Garrantzitsua da bertsolarientzat. Osinalde saria irabazten duena, eta bigarrena ere bai ahal bada, festetan ekartzen hasi ginen.

## Gabiriari zer eman dio Osinalde sariak?

Nik uste, bertso munduan behintzat, ezagutza bat eman diola Gabiriari. Euskal Herri mailan ezagun egin da Gabiria. Herritarrek bertsozaleak ere ekarri du. Hor egoten den giroa, leku gutxitan bilatzen da. Altabozik propio

ez dugu jartzen. Jendea hain ixilik egoten da!

Hasieran, telebistakoak grabatzera etortzen hasi zirenean, estorbo pixka bat ere egiten zuten. Argiak piztuta jartzen zirenean, ez zen leku naturala izaten. Baina horiek ere ari dira ikasten eta argiak aurretik jartzen dituzte piztuta, giora ohituta egoten da bertsolaria.

## Bertsolaritza gaztetu da eta entzulea ere bai. Azkeneko txapelketan behintzat hori nabarmendu da.

Aurreneko gaitz horri buelta emanda dago bai. Egia da, BEC-en bildutako guztiak ez zirela bertsozaleak izango, modak ere mugitzen baitu jendea. Baina asko eta asko bai.

## Bertsolaritza osasuntsu ikusten duzu?

Bai. Baina bertsolaritza ez





## sinalde sariaren aita

da kantatzea bakarrik, entzutea ere behar da. Arrisku txiki bat ikusten dut: Trikiti-xan gertatu zen bezala. Orain bezala trikitia joko balitz gure gurasoak-eta bizi ziren garaian, egunean denbora askoan dantzatuko zuten. Jendeak soinua entzun orduko dantza egiten zuen. Orain trikitia ondo jotzen duen jende asko dago baina dantzan oso jende gutxi egiten du. Bertsotan ere horrelako zerbait gertatuko den aukera bat ikusten dut. Kantatuko lukeenak asko egotea, eta entzulea falta izango dena. Jendeak lehia pixka bat utzi, eta beste gauza batzuk baloratzen hasi beharko litzateke. Txapelketan 13.000 lagun elkartu ziren baina Beasainen edo Ordizian saioa jarri eta zenbat lagun elkartuko dira, ba? 200? Kezka hori badaukat.

Festetan ere ikusten dugu, jende gaztea joaten da baina... Gure garaian, bertsoa zen garaian, taberna hutsik gelditzen zen eta gaur egun ez da horrelakorik gertatzen. Ez dago hain gaizki bertsolaritza, nahiz eta beldur pixka bat badudan.

**K**ezka bat badut: etorkizunean, bertsolari on asko egon bai, baina entzule gutxi izatea.

### Igartzabal bertsolari

Euxebio Igartzabalek, oso gaztetan entzun zituen lehengo bertsoak. "Herriko zinean entzungo nituen, fraileren baten meza berrian edo. Uztapide eta Basarri zirela uste dut".

Jendaurreko lehenengo jarduna ("hala deitzerik badago behintzat"-dio), Gabiriako plazan bertan egin zuen. "Luistarren eta Mariaren Alaben eguna ospatzen zen. San Luis egunean egindako festan, Soinua bazen plazan baina sueltoan bakarrik. Aspertu samar ginela, tabernara joan ginen eta erdi puntuan hasi ginen. Lau animatu ginen kantatzera, udaletxeko balkoitik. Jendeak nahikoa parre egin zuen".

### Lehenengo txapelketa, Beasainen

Hori bai, modu ofizialean, Beasainen jokatu zen Euskal Herri mailako kanporaketa batean egin zuen debuta. 1962a izango zen. "Etxean Nafarroara ehizera, galeperretara, nindoala esanda alde egin nuen", goratu du.

Luzio Gabiriak bakarrik zekien Igartzabal Beasainen izango zela. "Bera izan zen animatu ninduen. Vespahartu eta Beasaina joan nintzen. Jose Mari Gabiria, Luzioren semea, ere joan zen. Umea zen, eta ziba hartuta joan zen. Batzokian zen txapelketa. Ni errenditu ezinda eta Joxe Mari bere zibarekin. Goizean 11 ginen eta arratsaldeko saiora sailkatu nintzen. Gabiriako kodrila bat han zegoen, tarte nire osaba. Haien harri-dura! Arratsaldean, Alfontso Hirigoien gai jartzaileak, 'Ilargian bizi den bati' gaia jarri zidan. Ez nion ulertzen. Berriro esan eta batez. Han ere, leku guztietan bezala, Jaungoikoa egongo zela-eta esaten aritu nintzen. Saioa bukatutakoan, Hirigoien

etorri eta "gaia ez duzu ulertu?"- esan zidan. "Estas en la luna!" esan nahi izan dizut. Orduan bai, edozer gauza esan zitekeen. Hala ere, aurrera samar bukatu nuen".

Garai haietan, bertsolaritza parrandarekin lotzen zen eta zen oso begi onez ikusten bertsolari izatea. Igartzabalen etxean, dena den, ez zen horrelakorik. "Amari bertsoak asko gustatzen zitzaizkion. Kulpa gehiena gainera, igoal berak edukiko du. Ordiziara perira joan eta harek ekarri zidan aurrena Fernando Amezketarraren liburua. Lehenengo ikasi nituen bertsoak, Arantzasuko aldizkarian, Bernardo Alberro itsuarenak izan ziren".

Euxebio Igartzabalek onartu duenez, "gu gazteak ginenean, bertsolari izateko pixka bat parranderoa izan behar zen. Arratsaldeko 5etan eta 6etan, tabernan ez zen inor hasten bertsoan".

Lehenengo puntuak ere, festetatik bueltan botatakoa da gabiriarra. "Herri txikiotan beti izan da bertsozarako zaletasuna. Inguruko festetatik etxerakoan, oinez etortzen ginen, eta askotan aritzen ginen puntutan".

### Goierriko bertsozaleen lotura

Bertsolaritzaren munduan gazte-gaztetatik sartua dabil Euxebio Igartzabal. Han eta hemen bertso asko kantatua da. Oso gaztea zela, 27 urterekin, herrian omenaldia ere egin zioten. Herriko bertsolariak kantatzeko baldintza jarri zuen gabiriarrak. Iñaki Muruak adibidez, orduantxe kantatu zuen lehendabizikoz jendaurrean.

Kantatzearekin batera, antolaketan ere esperientzia handikoa da. Behin eta berriro azpimarratu duenez, Goierri dagoen bertsozaleen arteko harremana eskualde gutxitan dago.



*Repo, Aierbe eta Zeberio omenduko dituztela eta, garai bateko herri kirol kontuak gogoratuz*



## Haiek ziren ibilerak!

**A**taungo Urbitarte sagardotegian genuen hitzordua, hirukotearekin: Martxel Zeberio, Joxe Aierbe eta Jexux Agirre (Repo), aizkolariak lehen biak eta segalaria hirugarrena. Kafea lasai hartuz, garai bateko

apustuak eta komeriak gogoratuaz makina bat bitxikeria kontatu zituzten. “Haiek ziren ibilerak!” errepikatzen zuten behin eta berriro. Martxoaren 11n eta 12an omenduko dituzte Ataun San Gregorion.



Tel.:  
943 887 048

Faxa:  
943 882 801

Telleri z/g  
ORMAIZTEGI

**OSINALDE**

**KARROZERIA**

**AMEBI**




*Sagardotegia*

**Sagardoa**

**txotxetik**

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO






**Martxel Zeberio Begiristain**

1932ko abenduaren 29an Ataun San Gregorioko Atxurrene baserrian jaioa. Aizkoran ibilia da batez ere, baina aizkora eta korrika apusturen bat egin bada. Arruizko Txikitorekin 30 oin bete ebaki eta 6 Km korrika egin zuen apustua eta "irabaztea tokatu zen, galdutakoak ere badira baina hura irabazi egin nuen". 30 urte ingururekin hasi zen fabrikan lanean. Ordura arte basoan eta ikazkintzan aritzen zen, "txondorrek prestatzen aste

guztia mendian pasa eta igandea iritsitakoan mezetatik atera, aizkorak hartu eta berriz ere mendira joaten nintzen leher egin arte aritzera, zale-tasun handia genuen eta". Txapelketa gutxitan parte hartu zuen: Iruñean behin eta Donostian bi aldiz. Gehienbat erakustaldietan aritzen zen. Lata-sa, Arruizko Txikito, Alberdi, Errekalde edo Astibia izan zituen apustueta aurkari. Korrika, berriz, auzoko festetan bakarrik aritu zen.


1943ko otsailaren 7an Ataun San Gregorioko Lauztiturrieta baserrian jaioa. Aizkoran eta korrika aritzen zen. San Gregorioko festetan lasterketa antolatzen zen eta hantxe hasi zen Joxe korrika. "Lehenengo bi lasterketak nire kategorian irabazi egin nituen eta gero helduekin ere punta-puntan ibiltzen nintzen. Ez nuen aurrean ibiltzeko motibo handirik, ez bainuen entrenatzen. Urte batean Uliako Gimnastika krosean 4. edo 5. egin nuen, Mugerza memorialean 9. eta Lasarten 2., ordurako hankatik gaizki nenbilen. Espainiako txapelketa Madrilen zen eta medikuak ez joateko esan zidan baina, hala era joan egin nintzen eta han lesio larria izan nuen". Hurrena soldaduskan aritu zen korrika, Coruña Riazorren militarren Espainiako txapelketa irabazi zuen.

Soldadutza bukatzean baserriko lanetara itzuli zen, uda parte baserrian eta udazken eta negua basoan aritzen zen. "Basoan ari ginela aizkoran eta korrika Beizamako Alberdiri jokatzeko animatu ninduten. Apustua Tolosan egin genuen eta irabaztea tokatu zen". Hori 25 urterekin izan zen. Gero 27rekin Arruizko Txikitori jokatu zion eta harrezkero makina bat apustu egin ditu, aizkoran, korrika eta aizkoran edo korrika eta segan: Arriarekin, Astibiarekin, Mendizabalekin, Agiterekin, Mindegiarekin, Etxebeste-rekin... 30 apustutik gora jokatu ziotuen, batzuk irabazi eta beste batzuk galdu. Donostian 3,80 m zirkunferentziako enborra ebaki zuen eta Atauen bertan 3,60koa zutik. "Ugartebururen aurka Ormaiztegin 3,50 inguru-ko enborrarekin apustua egin nuen



**Joxe Aierbe Auzmendi**

eta irabaztea tokatu". Hiru bat txapelketetan parte hartu zuen eta 4. edo 5. postuetan geratu zen. Erakustaldietan ere asko ibili da, iaz arte. "Hemendik aurrera etsipena hartu beharko dugu, zahartu gara eta". Azken apustua 44 urterekin egin zuen eta 50 urterekin marka jarri zuen 20 kana erdiko eta 20 Km korrika.



**Jexux Agirre (Repo)**

1945eko abenduaren 21ean Ataun San Gregorioko Larruntza baserrian jaioa. Segala izan zen bere kirola. Joxe Aierbek berotuta hasi zen sega lehiaketetan. Lehendabizi San Martingo bira jokatu zion eta gero Zaldibiako Altzori. Harrekin bi apustu jokatu zituen, bat irabazi eta beste galdu. "Goierriko txapelketa antolatu zen eta ez nuen joateko asmorik. Azkenean animatu ninduten, bi aldiz entrenatuta joan nintzen eta irabazi egin

nuen. Nik ez dakit zer misterio gertatu zen". Hurrena Iruntxinberri eta Argiñarenari jokatu zion bakoitzak ordu erdia, hura ere irabazi egin zuen. Urte pare pare bat jokatu gabe egon ondoren Euskadiko txapelketa jokatu eta bigarren egin zuen. Belauntza, Repo eta Bengoetxea 12 kiloren barruan sartu ziren. "Bengoetxeak desafioa bota zidan eta berriz ere 7 edo 8 kiloz irabaztea gertatu zen". 45 urterekin jokatu zuen azken apustua.

### Zer giro sortzen zen apustuak egiten zenituztenean?

**Repo:** Gaurko egunean baino askoz ere giro hobea izaten zen. Altzok eta nik lehenbizikoz Bilore aurreko zelaian jokatu genuenean 4.500 sarrera saldu ziren. Orain ez da horren lautatik bat ere izaten.

**Zeberio:** Aizkora, sega, korrika... asko ikusten da

orain. Telebista ere hor dago. Jenderik ez da plazara joaten. Nik Iurrebasorekin Berrizen jokatu nuen eta hemendik 4 lagun motorrez joan ziren, ordu bietan lanetik atera ondoren euria goien behera ari zuela. Orduan beste giro bat zegoen. **Aierbe:** Hala ere Goierrin inoiz ez da hartarainoko giroa izan. Asteasu, Aia, Azpeitia eta inguru horietan

apustu giro handia izan da beti.

**Repo:** Asteasuoko sega kontuetan beldurgarriak dira. Jokoa garbi galtzen joanda ere irabazten ari direla uste dute eta dirua bere alde izaten dute.

### Desafioa nola botatzen zen?

**Aierbe:** Lagun artean burua berotzen hasten ziren. "Bota egin behar ioke" eta ze-

rorri pentsatzen hasten zara "Hura manejatuko nuke ba". Eta horrelaxe egunkari bidez botatzen zen desafioa. Askotan haserretu ere bai.

**Repo:** Bai gehienetan bai. Askotan geure buruarekin geu ez garela sinistuta ere bai. Eta jokoa egiteko horrelaxe behar da.

**Aierbe:** Apustuak serioak izaten ziren. Jendeak bat eta

beste esaten du, baina han lehendabizi norbera da, inork ez du galdu nahi. Mahaian musean hasi eta txakur txiki bat jokatu gabe, galdu eta askotan haserretu egiten gara. Hortik pentsatu. Tongo kontuak esaten dira baina, jendeak uste duena baino askoz ere gutxiago izan da.

### Nola entrenatzen zenu-ten?

**Aierbe:** Ahal zen bezala. Pago zaharren bat botatzen bazen halaxe. Apustua baguenen lapurretan egin eta ahal bazen etxera egurra ekarri eta hor entrenatu. Guk zorrik ez genuen egin, beti zer edo zer ekarri. Oraingoek berriz gastatu beharra daukate. Hori da tristea. Basoan lanean akabatzen aritzen ginen eta beti zailduta egoten ginen.

**Zeberio:** Etxetik atera eta ordu bete igual joaten ginen Nafarroa aldera aizkorak bizkarrean hartuta. Han pagoa bota eta aizkoran baino gehiago nekatzen ginen bidean. Orain etxe atarian entrenatzen dute eta jaiero badeute erakustaldiren bat. Hori ere entrenamendu ona da. Guk erakustaldi gutxi izaten genuen, oraingoan aldean. Herrian bertan festa batzuetan eskatu nuen egurrak jartzeko, debalde ebakiko nituela eta. Hala ere ez zidaten jarri.

**Aierbe:** Gure garairako hori aldatu zen. Ni Bizkaia aldean hasi nintzen Iurrebaso zaharrarekin eta asko ibili



*Herri-kirola asko aldatu da, baina bizimodua bera ere. Garai baietako kirolarien adierazgarri dira Repo, Zeberio eta Aierbe.*

nintzen Euskal Herri guztian.

**Zeberio:** Nik fabrikari ez nuen lan ordu bat bera ere galdu aizkorarengatik. 8-10 ordu lan egin ondoren mendira joan pagoa bota eta leher eginda aritzen nintzen. Mendian artzain aritzen ginen lekuan baguenen aizkora zahar bat eta harrekin aritzen ginen. "Hori ona dek" esaten zidaten, "horrekin egiten badek gero berriarekin diferentzia bilatuko dek". Afizio latza genuen orduan.

**Aierbe:** Aia eta Asteasu alde horretan beti koadrilan aritzen ziren, baina, Goierrri aldean beti bakarrik.

**Zuek San Gregorion bi bazineten behintzat.**

**Aierbe:** Repo eta ni aritzen ginen zer edo zer elkarrekin. Urteak joan dira eta ez

dizuet gezurrik esango. Behin igandean jokatu behar apustua eta ostegunean Lizarrustiko kantera ondora biok joan ginen. Lagunek esaten ziguten egurrak ekarriko zituztela, baina, eguna iritsi eta batera ez. Lizarrustin mendi puntara igo ginen, bi pago eder markatu genituen, joan ginen Etxerriko Letenera, merienda-afaria egin genuen, linterna hartu eta Repok argi egiten zidala bota nituen pagoak. Hasi zen tximista eta trumoa, biok jertse hutsean geunden.

**Repo:** Gau hartan metro erdiko elurra egin zuen eta tximista ere ondo ondoan sartu zitzaigun.

**Aierbe:** Orduan iritsi ziren anaia, Miel Zunzunegi eta Armuño. Ordurako linterna pilak gastatuta zen. Haiek

joan ziren Etxarrira pila bila eta ez ziren ageri. Linternen ipurtargiarekin ebaki nituen puska luzeak eta baikoitzak beaje bana jaitsi genuen.

**Repo:** Erreka gerrirainoko uretan pasa genuen eta dena elurrez zuri zegoen. Eta hala ere bideraino atera genituen egurrak.

**Aierbe:** Errepidean pasatzen zen inor ez zen konturatzeko han inor atrakoan zebilenik. Atera eta gero iritsi ziren lagunak kamioian linternarekin. Pentsa ze lagun-tza genuen.

**Honen antzeko anekdota ugari izango dituzue.**

**Aierbe:** Behin Lizarragako iturri inguruan hiru pago bota genituen, Repo eta biok trontzarekin. Aldapan behera erraz jaitsi genituen. Kamioiarekin joan ziren la-





# ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)    [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia    OLABERRIA



## aulia

TOLARE  
SAĞARDOTEĞIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea  
LEGORRETA



gunak mozkor-mozkor eginda azaldu ziren eta eguna zabaldu zenenean kargatu genuen kamioia.

**Repo:** Bidean etortzeko gauza ez eta Lizarrusti aldean lo egin zuten eguerdi artean, kamioi gainean egurrak zituztela. Hura zen kontrabandoa!

**Sufritzen jakin beharko da herri-kirolean aritze-ko.**

**Zeberio:** Nik, eta hauek berdin, egin ditudan guztiak grabatuz gero hura izango zen pelikula. Aizkoran, segan, korrika, mendian ikatza egiten...

**Aierbe:** Zenbat eta pasara handiagoa eman gorputzari, orduan eta handiagoa eman nahi.

**Zeberio:** Leher egiten ez bazenuen, gustura ez.

**Aierbe:** Kirolariak horixe behar du ba, eta hori ez badauka alferrik da. Apustuan ere sufritzen jakitea izaten da giltzarria, bestea aurrerago joan arren segi eta segi.

**Zeberio:** Agiñeta zaharrak esaten zidan: 'Zuk segi, zu gaizki ari bazara, bestea ere ez da ondo arituko'.

**Apustuatarako egurra nola aukeratzan zenuten?**

**Zeberio:** Nik Arruizko Txikitoren kontra jokatzeko, astoa eta mandoa hartu, Sastimendira joan,--bitartean beste biek ezin diote parrari eutsi-- ona iruditutako pagoa bota, jarri enborrik onenak astoan, aurrerago joan, bota beste bat, haienak mandoan jarri eta goitik behera bide erdia edo jaitsi. Hartu kaballeria eta berriz ere gora, berriz ere kargatu, lehengo lekura jaitsi eta hurrengo egunean handik etxera ekartzen genituen. A zer ibilerak.

Urte batean otsailean

izozte handiak izan ziren, pinu guztiak ihartu zituen. Ni soldaduskatik maiatzean etorri eta hurrengo otsailean jokatu nuen Aseztziorekin. Mendira joan eta aizkorarik ezin sartu, egurra hormatuta zegoen. Anaiak eta lehengusuak lagunduta egun guztian egurra prestatu, sua egin eta egurrak sutan jartzen genituen horma kentzeko. Baita etxera ekarri eta simaurretan sartuta ere edukitzen genituen enborrak.

**Aierbe:** Simaurrak lehortu egiten du egurra. Alberdiren kontra jokatzeko, ona zela eta, eduki nituen nik egurrak simaurretan. Gozoa kendu egiten dio eta gero ebaki itzazu haiek!

**Zeberio:** Guk horma kentzeko egun bat edo bi edukitzen genituen, denbora gehiagoan lehortu egiten dira.

**Orain gazteek zein etorkizun dute aizkoran?**

**Aierbe:** Egurra oso garesti dago eta zaila da gaztea prestatzea. Garai bateko gitorik ez dago. Gu txiki-txikitandik aitarekin lanean hasten ginen, sufritzen. Oraingo gaztea 20 urtera arte eskolan ibiltzen da eta ezinezkoa da gu bezala aizkorarako jartzea.


**Zeberio:** Gaur egun ere gazte ona asko dator. Gure garaian baino gehiago dago. Denen artean kalitatekoak ere aterako dira.

**Repo:** Denboran oso gora joaten dira ordea. Lehengo aizkolarietatik oraingoetara 20 kanaerdikotan 6-7 minuturen aldea dago.

**Aierbe:** Mindegia 30-40 urterekin bagenekien zer zen, orain 57rekin 2. mailakoa beharko luke, hala ere punta puntan dago. Ezin liteke.

## Ataungo Herri Kirolariei Omenaldia

2006ko Martxoaren 6tik 12ra Ataungo San Gregorion



## Omenaldia Ataun San Gregorion

### Martxoaren 6tik 12ra:

Omenduen argazki zahar eta tresnen erakusketa San Gregorioko Elkargunean.

### Martxoak 10, ostirala:

Egur ikatza ateratzen hasiko dira.

### Martxoak 11, larunbata:

**19:00etan:** Mahai ingurua, Elkargunean. Gaia: Herri kirolak. Hizlariak: Mendizabal, Astibia, Arria, Iruntxiberri, Erasun, Goenatxo eta Azurmendi. Moderatzailea: Luis Mari Bengoa.

**20:00etan:** Omenduei buruzko bideo emanaldia, Elkargunean.

**21:00etan:** Gaztaina jana trikitilariekin, Zelai pilotalekuan.

**02:00etan:** Txahala erretzen jarriko dute.

### Martxoak 12, Igandea:

**11:00etan:** Ongi etorria omenduei dantzari eta txistulariakin.

**12:00etan:** Aizkolari, korrikalari eta harrijasotzaileen saioa.

**14:00etan:** Herri bazkaria Zelai pilotalekuan. Bertsolariak: Joxe Agirre, Lazkano, Zeberio eta Mañukorta. Trikitilariak.

**17:30ean:** Aizkolarien 2. saioa.

# ARRIETA

## JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02  
**OLABERRIA**

## Ordizia

### Film laburren emanaldia, martxoaren 22an

Martxoaren 22an, Hitzaro Euskara Elkarteak Udaleko Euskara Zerbitzuekin elkarlanean, film laburren emanaldia eskainiko du Ordiziako Herri antzokian.

'Txotx' (1998, Asier Altuna eta Telmo Esnal), 'Sarabe' (1999, Beatriz de la Vega), 'Haragia' (1999, Begoña Vicario), '40 ezetz' (1999, Asier Altuna eta Telmo Esnal), 'Hauspo soinua' (2000, Inaz Fernandez) izango dira Ordizian ikusiko diren laburmetraiak. Guztira, 75 minutuko emanaldia.

## Beasain

### Goitzaten afaria, martxoaren 25ean

Adimen urritasuna duten pertsonen eta familien elkar-guneak, Goitzate elkarteak, afaria antolatu du martxoaren 25erako, Castillo hotelean. 40 eurotan daude txartelak salgai. Castillo hotelean, elkartearen edo 943881153 telefono zenbakira deituta eros daitezke txartelak. Herritarren babesa eta gizartearen sentsibilizazioa lortu nahi du Goitzatek afariarekin. Honela, afariaren helburua, jendeak aktiboki laguntzea lortzea da, urtean zehar egingo diren ekintzetarako dirua lortzearekin batera.

## Zegama

### Betso-afaria, Arzallus eta Colinarekin

Gaztetzaren inaugurazioa dela eta, bertso-afaria izango da martxoaren 10ean pilotalekuan, gaueko 9,30ak aldean hasita. Amets Arzallus eta Sustrai Colina izango dira bertsolariak. Afariaren aurretik, bertso-poteoa egingo dute herriko tabernetan.



## Segura

### Udaberriko lore eta landare azoka

San Jose egunean, martxoaren 19an ospatuko da Seguran, udaberriko lore eta landareen seigarren azoka. Segurako Udalak herritar talde batekin antolatzen duen azokan, era guztietako loreak eta landareak erosteko aukera izateaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izango da. Jarraian duzue egitaraua:

**10:00etan:** azokaren irekiera, Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak, eta eskualdeko artisautza eta produktuak.

**11:30ean:** plazan, basozaintza ikuskizuna, Jabi Lumbrerasen eskutik.

**18:30ean:** Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan.

**Ondoren:** buruhandiak.

#### Erakusketa

Martxoaren 15etik apirilaren 30era bitartean, 'Garapen iraukorra' erakusketa izango da ikusgai Ardidarran.

**Iñauti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zoki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

MUJIKA 19

**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

**VOLVO**

**ANZIZAR, S. A.**

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Ordizia

## 'Oiangu publikoa eta bizirik' plataforma: hitzaldiak eta errezitaldia

Datozen egunotan, 'Oiangu publikoa eta bizirik' plataformak hainbat ekitaldi egingo ditu, Ikena enpresak, Oiangu egin nahi duen golf zelaiaren proiektuaren aurka egiteko. Oianguko proiektua nola dagoen galdetuta, zera adierazi digute Plataformakoek: "oraindik obrak ezin dituzte hasi, horretarako Plan Berezia eta Ingurumen Inpaktuko Txostena behar baitira. Plan eta Txosten hori, Ikena egiten ari da eta ez Ordiziako Udala. Txosten horren zain dago Udala eta herritarroi txosten horien inguruko informazioa ukatzen zaigu". Behin txostena egindakoa eta "txosten horiek Udalak onartzen baditu, herritarrok hilabete bakarrik izango dugu Gipuzkoako Foru Aldundian alegazioak sartzeko".

Beraz, Oianguko auziaren egoera azaltzeko hainbat ekitaldi antolatatu ditu 'Oiangu publikoa eta bizirik' plataformak.

### Hitzaldiak

Batetik, Plataformak Oianguko proiektuarena Ordiziako arazoa baino gehiago eskualdeko arazoa dela uste duelako, Goierriko hainbat herritan hitzaldiak emango dituzte. Martxoaren 14an Beasainen eskainiko dute eta 17an Idiazabalen. Herri gehiagotara iristeko asmoa ere badaukate.

### 'Goierriko kasta'-ren emanaldia

'Goierriko kasta'-k ere bat egin du 'Oiangu publikoa eta bizirik' plataformarekin. Goierriko literatura munduan bildu direnek, errezitaldia eskainiko dute martxoaren 16an, Ordiziako Barrenan, arratsaldeko 7etan. Bertan irakurritako testuekin, liburuxka kaleratuko dute antolatzaileek. Errezitaldia, Pello Ramirez musikariaren doinuek lagunduko dute.

Lazkao

## Jon Maiarekin solasaldia

Martxoaren 21ean, asteartea, Lazkaoko Gerriko Txokoran, arratsaldeko 6,30etan, Jon Maia idazle eta bertsolariarekin solasaldia izango da. Zumaiarrak idatzitako 'Riomundo' liburuaren inguruan hitz egin dute bertaraten direnek.

## XIII. Gerriko ikerlan-beka

Goierriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak Gerriko ikerlan-bekaren XIII. edizioako oinarriak kaleratu dituzte. Goierri dagozkion edozein zientzi alorretako gai landu daitezke bertan: antropologia, filologia, toponimia,

literatura, osasuna, industria, nekazaritza, biologia, historia, ekonomia, medikuntza, ingeniari, zuzenbidea, pedagogia, psikologia, filosofia, informatika, eta abar. Herri-mailakoa nahiz eskualde-mailako gaia izan liteke. Edozein garaitako ikerlanak onartuko dira. Herriei buruzko monografiak ere aurkez daitezke. Hori bai, lanak euskarazko lan orijinalak izan behar dira.

Lanaren proiektuak, beranduenez, maiatzaren 5eko eguerdiko 12etarako aurkeztu beharko dira, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartearen (Lazkaoko Elosegi kaleko 16. zenbakiko 1. solairuan).

Proiektua garatzeko beka, 6.000 eurokoa izango da, Kutxak emana. Epaimahaiaren erabakia ekainaren 23an jakinaraziko da. Irabazleak, urtebeteko epea izango du ikerlana erabat bukatu eta entregatzeko.

Dirulaguntza hiru zatitan ordainduko da: onartutako kopuruaren %40, eskatzaileak oniritzia ematen duenean; %20 sei hilabetera, egin duen ikerlanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztutakoan; eta %40, ikerlan-beka onartu eta urtebetera.



**Alpe**  
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoena

Mariarats 10 Beasain  
Tfnoa 943 88 86 84

**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**

*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..



Beasain

## Asmube abesbatza sortu da

Beasaingo Emakume Elkarteak abesbatza sortu berria du. 18 bazkidek osatzen dute abesbatza, kantatzea gustatzen zaien eta kantatzen ikasi nahi duten emakumeak dira guztiak.

### Euskal kantu herrikoiak

Marisa Olano beasaindarra da irakaslea. Euskal kantu herrikoiak aukeratu dituzte kantatzeko, batez ere injustiziazko egoerak islatzen dituzten kantuak. Solfeo-rik jakin ez badakite ere, belarriz ikasten dituzte kantuak, nahiz eta partiturak aurrean eduki.

Asmubeko bazkideei zuzendutako abesbatza da eta oraingoz, irekia. "Denborak esango du taldea egonkortzen den ala ez". Dena den, urte amaierarako jendaurrean kontzertutxoren bat emateko asmoa azaldu dute, beraien burua prest ikusten badute behintzat.

2005eko martxoaren 10eko bazkideen batzarrean sortu zen Asmube abesbatza sortzeko ideia. Urtean zehar egiten dituzten beste hainbat ekintzekin bezala, abesbatzarekin ere, gizartearen emakumearen presentzia areagotzea lortu nahi dute.



Gabiria

## VIII. Rallysprinta

Martxoaren 12an, arratsaldeko 3etan, Gabiriako VIII. rallysprinta jokatu da. Euskal Herriko Rallysprint txapelketarako puntuagarria izango da Gabiriako saioa. Arretxe bizkaitarra, Gronholm finlandiarra, Mantecon kantabriarra, Labaka azpeitiarra, Alustzia legazpiarra... onenak ematen saiatuko dira Korta jatetxetik Legazpiko Motxorro bidegurutzerainoko 7,7 kilometroko ibilbidean. Hiru aldiz burutuko dute ibilbidea. Azpeitiko Lagun Artea eskuderiak antolatutako saioa da.

Zaldibia

## Gudari astea

Zaldibiako Ezker Abertzaleak, "herriko gudari hilak" omenduko ditu martxoan antolaturiko Gudari Astea. Hau da, 'Zaharra' martxoaren 8an hil zuen Guardia Zibila, duela 29; 'Pototo' martxoaren 14an, Polizia Nazionalak, duela 20 urte; eta Hodei Galarraga, duela 4 urte hil zen Bilbon, lehergailuak eztanda eginda. Egoera horretan, martxoaren 12an, igandean, ekitaldi politikoa burutuko dute Zaldibian. Ondoko egitaraua prestatu dute:

**12:00etan:** 'Pototo' hil zuten lekuan Donostian ekitaldia burutuko da.

**Eguerdian:** Herri bazkaria.

**17:00etan:** Ekitaldi politikoa.

**SOLOZABAL**  
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76



**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGOA

KOL. 2ka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

**Goierri**tarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Tfnoa: .....

NAN: .....

Kontu zenbakia (20 digitu): .....

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierri**tarra, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain



autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako **mintegiak**

Goierri  
martxoak 14  
ORDIZIA  
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:  
18:00-20:00

## Biltegien kudeaketa informatizatu eta eraginkorra

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren **Teknologia Berriek** Enpresa Txikien kudeaketan.

Zein da **egungo biltegien kudeaketaren egoera**? Zeintzuk dira **hobetzeko aukerak**? Zer lor dezakegu **merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak** egoki erabiliz gero? Nola lortu **etengabeko inbentarioa** izatea **irteeren eta sarreren erregistro** zorrotzarekin?

Informatzeko eta izena emateko:

**943 747 314**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



euskadi  
Informazio garrantzua en la sociedad de la información

e-gipuzkoa

SPRI

# Lore eta landareen udaberriko 6. AZOKA

2006.eko martxoaren 19an

**SEGURA**

### EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IREKIERA

- Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak
- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Eskualdeko artisautza eta produktuak

11:30etatik aurrera, IKUSKIZUNA plaza inguruan

- Basozaintza Jabi Lumbresaren (Irunbonsai) eskutik

Arratsaldeko 6:30etan

- Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan
- Ondoren, buruhandiak

ERAKUSKETA, Ardixarran

**"GARAPEN IRAUNKORRA"**

Martxoaren 15etik apirilaren 30era

rektor@e



**IBILGAILUAK**

**salgai**

**Volkswagen Transporter** furgoneta salgai. 1.9 TD, 90 zaldi, SS-BF. 7.500 euro. 650399303.

**Nissan Micra 1.2** visia salgai. 2 urte. 17.500 km. Oraindik urtebeteko garantia dauka. 620442756.

**Rover 420 sdi** autoa salgai. 105 zaldi. SS-BG. Gris metalizatua. 5.500 euro. 635204462.

**Volkswagen Polo GT** salgai. Merke. Egoera onean. 635716798.

**LOKALAK**

**errentan eman**

**Beasainen**, terrazadun taberna alokatzen da. 618763440 - 605760829.

**Legorretan**, lokala alokatzen da. 100 m<sup>2</sup>. Ezin hobea biltegi edo antzekoetarako. 630708624.

**salgai**

**Andoainen**, jatetxea salgai. 90 m<sup>2</sup>. Lanean hasteko prest. 943801051 - 665716722.

**LURSAILA**

**erosi**

**Goierri**n lursaila erosiko nuke, herritik gertu. 616698236.

**LAGUN BILA**

**Iruñean** lan egiten duen irakaslea, bidaia egunero kotxez egiten duena, bidai-lagun goierritar bila dabil. 605755697.

**BESTELAKOAK**

**salgai**

**Zurezko sehaska** salgai. Oso egoera onean. 125 euro. 20:00etatik 22:00etara deitu. 655731279.

**Eskiak**, Atomic carding, salgai. 170 cm. 250 euro. 943888601. Gauean deitu.

**OKi-C 3200 inpresora** laserra salgai. Estrenatu gabea. 300 euro. 653721512.

**14 -ko Kosei** llantak salgai. Kubiartekin. Merke. 675712179.

**Snowboard taula** salgai. 157 cm. 100 euro. 943888601. Gauean deitu.

**Eskiak** salgai, normalak. 1.70 cm. 40 euro. 650017295.

**Gasezko kaldera** salgai (ura eta berogailua). Oso egoera onean. 650017295.

**Gitarra elektrikoa**, Gibson Flying V67 salgai. Beltza, kolpekari txurra, zorro orijinala. 1.000 euro. Orokorrean, egoera onean. 645713541. Martin.

**4 llanta** salgai, Clio 1.6. autoarenak. Fl eko kubiarta berrie-kin. 650728723 - 943087767 (20:00etatik aurrera deitu).

**ANIMALIAK**

**salgai**

**Bi astakuma** salgai. 653701444.

**BASERRIAK**

**erosi**

**Goierri**n edo Tolosa aldean baserria erosiko nuke. 616698236.



**GUK Lan**  
BAINUKO OSAGAIK  
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933 Tailerra:  
Nafarroa Etorbidea, 27 Okorro, 6  
**BEASAIN** **ORDIZIA**



**mazda** ☎ 943 889 296  
Faxe: 943 887 952  
**Bikar, S. A.** N-1 errep. 419 Kma  
**BEASAIN**



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
**BEASAIN**

**berriz**

AMAYA ARZUAGA FRENCH CONNECTION  
MIRIAN OCARIZ DIESEL  
ISABEL MARANT FOR ALL MANKIND  
PAUL & JOE ANTIK BATIK  
HOSS EARL JEANS  
MISS SIXTY SCOOTER

**BEASAIN** **DONOSTIA**



## ETXEBIZITZAK

### salgai

**Beasainen**, erdigunean, apartamentu bezala prestaturiko lokala salgai. Eraberritua. 657729057.

**Beasainen**, erdigunean, etxebizitza salgai. 80 m<sup>2</sup>. 2 logela. Jangela-egongela handia. Oso eguzkitsua. 943883145 - 943881085.

**Donostian**, Artzain Onaren inguruan, bizitzeko egokitutako sotoa salgai. 38 m<sup>2</sup>. Erabat berritua. Aire egokitua. 650114788.

### errentan eman

**Jakan**, Aste Santuan eta Pazko astean (apirilaren 13tik 23ra), etxea alokatzen da. 676615361.

**Nafarroan**, Urederraren sorburuaren eta Urbasaren ondoan, landetxea alokatzen da. Asteburuetan, zubietan, oporretan. Handia. 948539381 - 616537765.

## LANA

### eskaerak

**Goierriko hotel batean** lan egiteko jendea behar dugu. Zerbitzatzeko eta sukaldarako. Bidali kurrikuluma, Beasaingo 39 posta-kutxara.

**Informatika irakaslea** behar dugu. Bidali kurrikuluma, Ordiziako 61 posta-kutxara.

**Emakume heldua** behar da, goizetan, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 692715029.

**Lazkaon**, langile bat behar da tabernan lan egiteko. 943886852.

**Emakume** bat behar da, iluntze partean asteartetik larunbatera lan egiteko. 607365743.

**Zerbitzaria** behar da Beasaingo taberna batean. 616698236.

**Jantzigintza industrialera**ko langilea behar da Zaldibian. Astelehenetik ostiralera, 7,30etatik 12,30etara. Ezinbestekoa da makinaz josten jakitea. 943162230.

**Ordiziako taberna** batean, zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. 629114977.

**Zerbitzaria** behar da erretegi baterako, larunbat gauetan eta jai batzuetan. 615700406.

### eskaintzak

**Aurreinpresio eta grafikotako teknikoa** lanerako prest dago. 678471206.

**Ekuatoriar emakumea** prest dago garbiketarako egiteko, goizetan. Esperientziaduna. 630250016.

**Neska** prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. 647896460.

**Neska** prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. 679890464. Goizez deitu. Lurdes.

**Neska** prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. 660635956.

**Neska**. Prest nago arratsaldetan haurrak zaindu, etxeko lanak egin, eskailerak garbitu... 615009833.

**Erreformatan, peoia** bezala lan egiteko prest dago 35 urteko mutil euskalduna. 678471206.

**Emakumezkoa**, prest dago edozein lanerako. 626695216.

**Neska euskalduna** prest dago kafetegian edo dendan lan egiteko. Administrari ikasketak ditut. 615731348.

**Sukaldari laguntzaile** bezala lan egiteko prest dago emakumezkoa. Esperientziaduna. 664266989.

**Emakumea**, prest dago edozein lanerako. 626695216.

**Neska** eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko eta ostalari-tzan lan egiteko. Paperak arautuak. 670376201.

**Neska** eskaintzen da helduak zaintzeko, gauetz. Esperientziaduna. Paperak arautuak. 616889923. Gauetz deitu.

**over Urraki**  
*Bidaietan adituak*

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak  
Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120  
www.ikaskide.net

### UNIBERTSITARIOAK


- ✓ Enpresaritza
- ✓ Kimika
- ✓ Farmazia
- ✓ Injinaritza
- ✓ Presentziala tutoritzapean

### INFORMATIKA

- ✓ Mekanografia
- ✓ Ofimatika (Word)
- ✓ Datu basea (Acces)
- ✓ Talde txikiak tutorearekin

### INGELERA

- ✓ Azterketa ofizialak (Cambridge)
- ✓ KET, PET, First Certificate
- ✓ Talde txikiak



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 **ORDIZIA**

**AUSO EGI**

### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



**F.M. 89.2**

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



**Ezkontza Beasainen, 1956. urtean**

1956ko irailaren 19an Loinazko San Martinen, Joxe Etxezarreta eta Karmen Arregiren ezkontzako argazkia da.

**Goiko ilaran:** Milagros Arregi Unanue, ezezaguna, ezezaguna, Maria Mintegi Mujika, Xanti Mendizabal Etxezarreta, Sebastiana Legazpi Olaeta, Pedro Olanar Gabilondo, Mari Karmen Mujika eta Trinidad.

**Aurrean zutik:** Benita Etxezarreta Arizmendi, ezezaguna, ezezaguna, Inazio Aranburu (Upabia), Isabel Iriondo, Joxe Unanue Gabilondo, Zezilia Aranburu Amundarain, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna eta Manuel Cacho Aranda.

**Eserita:** Konsuelo Mendizabal Etxezarreta, Balentina Unanue Gabilondo, Jose Luis Arregi Unanue, Karmen Arregi Unanue, Joxe Etxezarreta Arizmendi, Eusebi Etxezarreta Arizmendi, ezezaguna eta Maria Etxezarreta Arrigain.

**Aurrean pikotxean:** Ezezaguna, Inmakulada Garin Arregi, Jose Mari Unanue Aranburu, Joxe Garin eta Urbieta.

**Zunzunegi**  
**Oinetakoak**  
 Hirigoien, 8A LAZKAO  
 943 087 913

**Arriak parrilan**  
 © 943 65 21 76  
**ZALBIDE**  
 TOLARE  
 SAGARDOTEGIA  
 ABALTZISKETA

**ALDANONDO GARAJEA**  
 MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
 alineazioa,  
 aluminiozko llantak  
 Filtroak, olioak,  
 engrasea  
 Frenu pastilak, tubo  
 eskapeak, bateriak  
 Harezko txorrotadak

Errota Polligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"**

K. Nagusia 35 BEASAIN  
 ☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO  
 ☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA  
 ☎ 943 16 00 44

**GOKINDEGIA GARIONA**



# Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018  
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

**K**analoiak

**B**ajanteak

**F**atxadak

**P**intura

**T**eilatua

**T**ximiniak


...



**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





*Etxearen  
epelean*



## TXIMINIAK

- ✕ Burdin galdatuzkoak
- ✕ Gasezkoak
- ✕ Elektriakoak  
*Ez dute behar ez ke  
irteera, ez obrarik*
- ✕ Sukalde klasikoak

## ESTALDURAK

- ✕ Harlandua
- ✕ Simulazioa  
poliuretanoan  
*Egurrezko habeak  
Adreiluak  
Arbela*



# SUTAN

Tel./Faxa: 943 720 638

Mug.: 665 737 302

Mugitegi industrialdea, B bidea 6 behea  
20700 URRETXU

e-posta: [sutan@sutan.biz](mailto:sutan@sutan.biz)

